Artzape
getariarron topagunea

2019ko martxoa 190. zbk

ELKARTASUNEZ BETETAKO OPORRAK NIKA LERTXUNDI AZKEN TXANPAN



Astillero
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
Parrillan espezialitatea
Kaia, 1
20808 GETARIA
Tel.: 943 14 04 12

Garbiñe Ibarbia Gamboa
Colegiado Nº 5158/158
- Proiektuak eta erreformak
- Obra-zuzendaria
- Obra-eta jarduera-baimenak
- Gremio koordinaketa
barne diseinua interiorismo
Kristobal Balentziaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbi.ibarbia@hotmail.es

Katrapona 4
Tel. 943 140 409
info@katrapona.com
www.katrapona.com
KATRAPONA

GIROA TABERNA
·Plater konbinatuak
·Bokatak
·Pintxo goxoen aukera
Kale Nagusia, 24 - GETARIA - Tel.:943 140 800

portu
nagusia 12
20808 getaria
943140285

MAISOR
Kantauriko esperientzia
OBRADOREA eta DENDA
Tel. +34 943 140 993
www.maisor.com
GETARIA
ANTXOA | ANTXOA OZPINETAN | HEGALUZEA | BERDELA | MENTREZKA | SARDINTXOAK

PINTXO GOXOAK
ITSASKIAK DASTATZEKO EDO ERAMATEKO
GETAKA
GETARIAKO PRODUITS EXPRESSION
KALE NAGUSIA 35. GETARIA - TEL.: 943 02 16 13
WWW.GETARIAEXPERIENCE.COM
WWW.GETAKA.ES

K KAIA KAIPE
JATETXEA RESTAURANTE
Arnao generala, 4 20808 Getaria // 943 14 05 00 // www.kaia-kaipe.com

Eugenio Uranga
Aseguru Artekaria
Herrerieta, 12
20808 GETARIA
Tel.: 943 140 120
Mobila: 652 775 061
E-posta: euranga@getaia.com

SALANORT
MAESTROS CONSERVEROS
KALE NAGUSIA 22
GETARIA
943 14 06 24
tienda.getaria@salanort.com
Síguenos en FACEBOOK
www.salanort.com

EDITORIALA ETA AURKIBIDEA

16-17 Erreportajea: Sahara eta Txernobylgo haurrak



22 Harritarten txutxupeka: robotika

4-5	Salberak Itsaskabrari
6	Iritzia: Joxi Erauskin
7	Artzapetik begira: Xabier Insausti
8	Argazki erreportajea: otsaileko ekitaldiak
9	Klik batean
10-14	Elkarrizketa: Nika Lertxundi
16-17	Erreportajea: Sahara eta Txernobylgo haurrak
18	Elan Euskadi
19	Historiaren katebegiak
20	Eskubide Sozialen Karta
21	urpekHARIAK
22	Harritarten txutxupeka
23	Urritza Aisialdi Taldea
24	Komikia
25	Getariako hitza eta Txikiegia agian
26	Agenda

2019ko martxoa 190. zbk

Artzape
getariarron topagunea

[Argitaratzailea] Artzape Euskara Elkartea
[Egoitza] Krixketaneko Iturrigaina 1 - Eskualtxeta Kulturgunea
[Kontaktua] 943 000 548 / artzape@topagunea.com
[Erredakzioa] Iure Eizagirre eta Joseba Fuentes.
[Lan taldea] Aritz Iribar, Eider Iribar, Izaro Uzin, Jon Ander de la Hoz, Josune Urresti, Nerea Kamio eta Unai Lorenzo.
[Kolaboratzaileak] Aitor Irigoien, Amaia Irazabal, Andres Alberdi, Beñat Gereka, Edurne Irigoien, Elan Euskadi GKE, Ereiten Kultur Zerbitzuak, Garbiñe Ibarbia, Getariako Eskubide Sozialen Karta, Getariako Udal Liburutegia, Goiatz Lazkano, Iturzaeta Herri Eskola, Jon Ander de la Hoz, Joxi Erauskin, Kepa Iribar, Markos Aizpuru, Mikel Mugika, Saioa Martinez de Lahidalga, Urritza Aisialdi Taldea, Uxoa Irigoien, Xabi Insausti eta Zigor Saizar.
[Diseinua] Aritz Paredes eta Xabier Isasti.
[Inprimategia] Gertu (Oñati)
[Tirada] 365 ale
[Lege gordailua] SS-504/01
[ISSN] 1578-469X

ARTZAPE ALDIZKARIAk ez ditu bere gain hartzen aldizkarian argitaratzen diren iritziak.

GETARIAKO UDALAK, FORU ALDUNDIAk eta EUSKO JAURLARITZAk diruz lagundutako aldizkaria.

Getariako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

JON ANDER DE LA HOZ

Estereotipoak

Zigor, beti begiratu izan zieat harritu samarrik jende multzo bakoitzari etiketak jartzen dizkietenei. Nik ere izango diat hortik, noski, baina lastoa besteren begian ikustera ohituta negok ni (ere?), eta besteei entzunak etortzen zaizkidak gogora: arraunlariak, sekta bateko partaide; triatletak, bigorexikoak; Gaztetxekoak, porrozaleak; eta abar.

Zabalduenetakoak futbolarien ingurukoak dituk. *Enkapritxatu* batzuk direla, "milioidun goiztiarrak", eta, ia beti, ezjakin hutsak. Lan kontuak tarteko, azkenaldian gizonezkoen Lehen Mailako zenbait jokalari ezagutzeko parada izan diat, eta, bakarren bat bai, baina gainontzean estereotipo horretatik urruntzen dituk gehienak. Denetarik zegok Zubietako soropilean: lepatenteren bat akaso, baina baita isilak, umoretsuak, lasaiak, gure kuadrillarekin txikiteora gonbidatuko nizkiakeen alprojak eta grabagailu bat gerturatu orduko dardarka jartzen direnak. Gizakiaren semeak guztiak.

Egoera horiek estereotipoetan pentsatzen jarri naitek, eta gehiago harritu naik beste kontu batek. Erne jarraitu diat Jordi Grauperak Bartzelonako alkategai independentista hautatzeko prestatutako proiektua. Bada, plataforman aurkeztu dek bat, Borja Vilallonga, arreta piztu didana: 1985ean jaioa, *El Temps* aldizkari ezaguneko zuzendari ohia omen dek. Kuriositatea piztu, eta haren figuran gehiago arakatu nian Googlen: kazetaria, Historian doktorea, Columbia unibertsitatean diharduena, ezkertiarra, judua... eta *Boixos Nois*eko kidea. Ez dek esamesa; berak, bere sare sozialetan, talde horretako bazkide txartela erakutsi dik.

Boixos Nois, bai. Mutiko zoroak, euskaraz. Borrokazale, neonazi —denetarik omen han ere—, burugabe eta anker omen diren horien artean halako figura bat. Eta berriz zioat: judua. Balizko uniformetasun hori kolpe batez hausteko moduko figura bat.

Eta hau zergatik diodan? Bada, iruditzen zaidalako jarriak badirela adibide batzuk zuriaren eta beltzaren artean grisa ere badagoela ohartzeko. Sarri ikusitakoa ez dela egia, pertzepzio hutsa baizik, eta hobe geniakeela egoera eta pertsona bakoitzari gehiago erreparatu haren inguruan entzundakoak haizatzen ibili baino. Agian, espero gabeko sorpresak jasoko genizkiake.

ZIGOR SAIZAR

Tipo estereoak

Etiketak jartzen aritzen diren tipoak, etiketak jarri eta horiek haizatzea komeni zaizkien tipoak... tipo estereoak. Baina tipo estereoak estereotipoetatik ez dik atera nahi izaten, estereotipoetan eroso sentitzen dek eta beraz, norbait estereotipotik ateratzen denean, orduan hasten dek etiketak jartzen.

Egin bazkide!

Gure Txeruren postontzian
edo
www.artzape.eus/bazkidetza

Demagun sexuan. Jaiotzez denok heterosexualak garela pentsatu behar diagu, agidanez. Beraz estereotipo honetakoa ez denak atera behar dik armairutik: homosexualak, adibidez. Edota bisexualak —biziotsu hutsak, xaleak...— orain modan omen zeudek... Noski, heterosexualetik ateratzen den guztia ezin baizitekek "normala" izan, beraz moda kontua; betikoa, naturala norberaren estereotipoa baituk, heterosexualitatea. Hori bai, oso modernoak gaitunk, oso toleranteak.

Antzekoa gertatzen dek ardurak hartzekorakoan ere. Tipo estereoak modu "eraikitzailean" haizatuko dizkik herrian zenbat gauza dauden gaizki: "turismo zikina, kalean ezin denk pasa eguerdi eta arratsaldetan"; "gurasoek txakurrei eta umeei euskaraz, baina beraien artean castellano hutsean, Getai batian!". Eta ondoren... "entzun al denk urlia alkatetzarako aurkezten dala? Saltseroa denk, eta gustatu egiten zaionk protagonista izatea". Noski, tipo estereoak nahiago dik hondartzara joan, txikiteoan ibili, sofan serieak edo *telebost* ikusi, bileratara joatea baino. Baina bera gaizki ez geratzeko, bere estereotipotik ateratakoari etiketak jartzen zizkiok: "saltseroa", "bere burua agerian uztea gustuko duen sandia".

Duela gutxi batek hau galdetu zidaan: "Zigor, ARTZAPEn hire argazkia ikusi nian zutabe baten gainean —ez zian irakurri, seguru, idatzitakoa—, baina hik zer ekarpen egiten dek, bada, aldizkarian idatzita?". Tipo arriskutsuak gaituk hauentzat, Jonan, herriko aldizkarian gustuz, afizioz, idaztearen plazeraz idazten diagunok. Eta guri ere etiketak jarriko zizkigutek, ziur, beraiek eroso dauden eremutik ateratzeko gai ez direlako: "*intelektualillo*ak", "sasi-idazleak", "*frikia*k"...

Estereotipoetan eroso bizi diren tipo estereoak... hobe liketek biziotsuak balira, xaleak... zoriontsuago biziko hituake herri polit batean.

ZAINTZA EGUNAK

Martxoaren 11tik 15era.

FULDAIN FARMAZIA

Izen-abizenak:

Helbidea-Herria:

Telefonoa:

Helbide elektronikoa:

Kontu zenbakia (IBAN):

Banketxea:

Urtean 25€ - Getariatik kanpo bidaltzea 30€

JOXI ERAUSKIN

Dinosauroa hor dago, beti hor!

Garai hauetan irakurtzeko egokia da Augusto Monterrosoren ipuin laburra, literatura unibertsaleko ipuinik laburrena eta aipatuenetarikoa. Hain zuzen, sei hitzetan unibertso zabal bat azaltzen du: "Esnatu zenean, dinosauroa oraindik han zegoen".

Horixe besterik ez, baina interpretazio asko izan ditzake. Adibidez, gurera etorrita esan genezake Euskal Herrian eta Katalunian askatasun kontzientzia esnatu zenean, frankismoa oraindik han zegoela. Unionismoa esnatu zenean, independentismoa oraindik han zegoela. Bi herrialdeak askatasun egarriarekin, eta dinosauroa oraindik han. Dinosauroa bai, harrizko dinosauroa.

Egia esan sekula ez zen aldendu; nahiz eta diktadorea mausoleo batean dagoen azken berrogeita hiru urteotan, haren izpiritua bizirik egon da denbora luzean Espainiako estatuan. Politikan, epailetzan, indar armatuetan... hor egon da haren presentzia; eta Espainiaren batasuna arriskuan ikusi ohi duten bakoitzean beren ezkutalekutik konplexurik gabe atera izan dira. Euskal Herrian jakin ondo dakigu, nola hemen herri gisa hartu izan diren erabaki asko atzera bota izan dituzten Madrilen, eta nola ultraeskuindarrak agertzen ziren beren sistema arriskuan ikusten zuten bakoitzean.

Baina azken urte hauetan Katalunian gertaturikoak alarma guztiak piztu dizkiete eta euskarriak hautsi. Kataluniarrek ere esnatu direnean ikusi dute dinosauroa han zegoela, sekula ez zela desagertu. Gatazkari irtenbide negoziatu bat eman beharrean, egoera usteltzen utzi zuten. Negoziatu nahi duen herri batek ikusten badu aurreko aulkia beti hutsik dagoela, gauza gutxi egin daiteke horren aurrean. Azkenean herritarrak bozkatzera irten ziren inoren baimenik gabe, herri libre gisa, eta kriminalizatuta bukatu zuten, espetxean. Mundu osoak ikusi zituen hango irudiak, irudi lotsagarriak.

Izan ere, kultura demokratiko ezak horrelako bidegabekeriak dakartza. Gatazka dagoen tokian negoziatzea galtzak jaistea dela iruditzen zaien horiekin zer espero daiteke? Horrek guztiak eskuina indartu egin du; ultraeskuina gero eta lotsagabeago eta oldarkorrago agertzen ari da Estatu osoan. Kataluniako auziak eta diktadorea hilobiz aldatzeko erabakiak aspaldiko mamuak berpiztu ditu, eta dagoeneko, hiru alderdiz osatutako eskuina mehatxuka ari da, agintera iristen badira lortutako eskumenak eta eskubideak kenduko dituztela esanez. Andaluziako azken hauteskundeetan gertaturikoa horren adibide. Inboluzioa martxan da. Dinosauroa hor dago oraindik.

Bestalde, Espainiatik kanpo ere, Europan eta munduko hainbat tokitan, ultraeskuinaren gorakada handia izaten ari da; ez da soilik hemen gertatzen den fenomenoa. Gainera, ez ahaztu munduko agintari ahaltsuenak, Trumpek, bultzatuta datorrela. Azken iritzi azterketek esaten dutenez, Europar Parlamenturako datozen hauteskundeetan, ultraeskuinak nabarmen egingo omen du gora. Langabeziak, immigrazioak, miseriak... bazka eta oinarri egokia sortzen die alderdi faxista, xenofobo eta matxista orori, horiek guztiak eginez egungo egoeraren erantzule.

Herritarren kezka nabarmena da, noski. Orain arte lorturiko eskubideak arriskuan daude. Inboluzio horretan erortzea atzera pauso larria litzateke. Ez da bidezkoa urte askotan irabazitako eskubideek, berdintasunak eta gizarte politikek atzera egitea.

Monterrosoren ipuin laburra adibide hartuta, interpretatzio askotako egoera bizi dugu gaur egun. Batzuek diote etorkizuna idatzita dagoela eta beste batzuek, berriz, idatzi egin behar dela. Nik, badaezpada, Bob Dylanek abesti batean esaten duena ekarriko dut gogora: "*...erantzuna haizean dago*".

XABIER INSAUSTI

XXI. mendeko Balenciaga

Dudarik gabe Balenciagak bere garaia bizi eta pairatu zuen. Nahiz eta Hubert de Givenchyk "bere sormenek harmonia lasaia" adierazten zutela zioen, zerbait tragikoa ere sumatzen da atzean. Armonia horrek badu zerbait zaharkitua, bere museoak bezala.

Getariak, bere aldetik, hari dedikatutako museoarekin, bere iraganarekiko kontzientzia txarra bereganatu nahi du, bere modernitatearekiko zama astuna garbitzeko. Museoa ez da herrikoia, museoa herriaren inkontzientea da. Hor dago, zerbait esaten, baina zer?

Ez dugu nahi oso zehatz entzun museoaren mezua, ez diogu nahi gure susmoaren oihartzunari atentzio gehiegi jarri. Museoa da Getariari egia esaten diona, eta Getaria da museoari bere urruntasuna markatzen diona. Bien arteko harremana zaila da, oso zaila. Batak besteari esaten dio besteak lehenengoari ezkutatu nahi diona.

Getariari moda bost axola, museoari jendearen errealitatea bost axola. Balenciagak eta Getariak elkar begiztatzen dute, arrotzak bezala. Zertaz ari da jostun hori? Zerk lotzen nau bertako jendearekin? Nire tragediak herriko tragedia markatzen du. Herriko errealitateak niri urruntasuna markatzen dit, *Extraños en la noche* pelikularen moduan. Oso urrun daude oraindik bata bestearekiko, oso arrotzak Getaria eta Balenciaga.

Getariako modernitatea museoarekin azpimarratu nahi da, eta hain zuzen ere, modernitatearen falta agerian uzten da. Baina Balenciagak ere bere jatorria gaizki ezkutatzen du. Horregatik ez zuen gustuko plaza publikoan agertzea, bere tragedia hain nabaria, hain mingarria zelako. Bere barruko benetako errealitatea ez zegoen bat kanpoko errealitatearekin.

Getariako museoa ezintasunaren museoa da. Ezkizofreniaren kronika agerian uzten du, baina hori ez da epaitzen tribunal politikoetan, historiaren epaimahaietan bakarrik. Ea norbaitek Balenciagaren benetako historia, bere benetako tragedia idazten duen. Hori izango litzateke herriak berari sor dion omenaldia. XXI.mendeko Balenciaga behar dugu.

Iturzaetako haurrak Santa Ageda bezperan.

Kataluniako politikari independentisten aldeko elkarretaratzea epaiketa hasi zen egunean.

Mertxe Aizpurua eta Andoni Olariaga *Argala. Pensamiento en acción* liburua aurkezten.

Elkano Fundazioaren aurkezpena: Ion Irurzun, Alaia Berriozabal eta Rafael Zulaika.

Getariako Orientazio Proba, gauez.

Bertso afaria Danel Olano eta Aitor Mendiluzerekin, Giroa tabernan.

Haurren judo erakustaldia Sahatsaga kiroldegian.

Argazki gehiago

www.artzape.eus

helbidean.

Getariako 18. Literatura Lehiaketako oinarriak

Abian da Getariako 18. Literatura Lehiaketa. Parte hartzera animatzen direnek egiteko hauek bete beharko dituzte:

Parte-hartzaileak: lehiaketa getariarrei zuzenduta dago. Partaide bakoitzak lan bat edo gehiago aurkez ditzake, betiere adinaren arabera dagokion mailan.

Modalitateak eta mailak: bi modalitate izango dira maila bakoitzean: ipuina eta bertso/olerkia

- LHko 2. mailako haurrak.
- LHko 3. mailako haurrak.
- LHko 4. mailako haurrak.
- LHko 5. mailako haurrak.
- LHko 6. mailako haurrak.
- 12-14 urte arteko gaztetxoak.
- 14-16 urte arteko gazteak.
- 16 urtetik aurrerakoak.

Gaia eta luzera: gaia librea izango da eta testuek jatorriz euskaraz idatziak izan beharko dute. Lan originalak aurkeztuko dira, argitaratu eta bestelako lehiaketetan saritu gabeak.

Neurriari dagokionez honelakoak izan beharko dute:

- LH2tik LH4ra: orrialde bateko ipuina; 8 lerroko olerkia edo bertso bat.
- LH5 eta LH6koek: bi orrialdeko ipuina; 10 lerroko olerkia edo bertso bat.
- 12-14koek: 2-5 orrialdeko ipuina; 12 lerroko olerkia edo bi bertso.
- 14-16koek: 3-6 orrialdeko ipuina; 20 lerroko olerkia edo hiru bertso.
- 16tik gorakoek: 4-10 orrialdeko ipuina; 35 lerroko olerkia edo bost bertso.

Lanak nola aurkeztu: ordenagailuz idatzita (LH 2koek eskuz idatzita aurkez ditzakete). Letra mota: Times New Roman, 12. Lerroartean tarte bikoitza utzi, eta DIN A-4 neurriko orrietan.

Idazlanarekin batera, gutun-azal itxi batean adieraziko dira egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefono zenbakia. Kartazalaren kanpoaldean, ipuin edo olerki/bertsoaren izenburua idatziko da.

Lanak aurkezteko leku eta epea: Udaleko bulegoetan edo Udal Liburutegian 2019ko martxoaren 29ko 13:00ak baino lehen.

Epaimahaia: Iturzaeta Herri Eskolako irakasle batek, Artzape Euskara Elkarteko ordezkari batek, herriko idazle batek eta Getariako Udaleko Euskara Batzordeko buruak osatuko dute. Idazkari lanak udal teknikariak egingo ditu.

Sariak eman gabe utz ditzake, aurkeztutako lanek behar besteko mailarik ez dutela irizten badio.

Erabakia: sariak apirilaren 12an banatuko dira, 18:30ean.

Sariak: maila eta modalitate bakoitzeko sari bakarra emango da.

- LH2tik LH6rakoentzat, saria.
- 12-14 urtekoentzat: saria.
- 14-16 urtekoentzat: saria.
- 16 urtetik aurrerakoentzat: 150 euro.

Lanen jabetza eta argitalpena: saritutako lanak Getariako Udalaren esku gelditu dira, eta berea izango da lan horiek erakutsi nahiz argitaratzeko eskubidea. Egileek ez dute jabetza eskubiderik jasoko.

Idazlanak itzultzea: saririk jasotzen ez duten idazlanak Getariako udaletxean eskuratu ahal izango dira, sari banaketa egin eta 30 eguneko epean. Jaso gabeko idazlanak Udalaren esku gelditu dira.

Literatur lehiaketan parte hartzeak lehiaketa arautzen duten oinarriak onartzea dakar.

NIKA LERTXUNDI

"ARAU SUBSIDIARIOAK LEGEGINTZALDI BERRIAN LANDU BEHARKO DITUZTE"

Zortzi urtez izan da Getariako alkate, eta duela hilabete batzuk iragarri zuen maiatzaren 26ko hauteskundeen ondoren utziko duela kargua. Balorazioak egiteko unean balantzea "ona" izan ohi bada ere, une denak ez direla halakoak izan aitortu du. Urteotan Udalean bizi izandakoez, egiteko geratu diren gauzez eta oraindik sakon aztertzeko astirik hartu ez duen etorkizuneko bizimoduaz aritu zaigu.

TESTUA
IURE EIZAGIRRE

Zortzi urteren ondoren, ekainean utziko duzu alkate kargua. Nolako balorazioa egiten duzu?
Urte biziak izan dira, atsedenik gabekoak. Gauza asko egin beharra tokatu da. Ni saltsero samarra naiz eta honetan nahiko gustura jardun dut.

Balorazioa egiterakoan denek esaten dute "ona". Egoten dira gorabeherak, pertsonalki ere, baxuago zabiltzan uneak. Beste batzuetan, arazorik handienekin ere, zu indartsu zaude eta errazago eramaten duzu.

Bi legegintzaldiak desberdinak izan omen dira.
Ezberdinak bi eratan: batetik, sartu berriak ginelako eta bestetik, krisiagatik.

Denok gentozen galbahe bat pasata: Estatuak galarazi egin zion ezker abertzaleari hauteskundeetara aurkeztea eta ondorioz "zibil egoki"en bila ibili ziren. Ausartu egin ginen.

Beste desberdintasuna izan zen, 2011n udaletxera heldu ginenean, krisiak bete-betean harrapatu gintuela. Ekonomikoa zen baina *dekretazo* ezagun haiek ere jasan genituen, batez ere kontratazioan, gastuen murrizketan, eta abarretan.

Menditxoko etxeen hormarena eta itsaso-denboralea ere, biak denbora gutxiren barruan, hasiera samarrean izan ziren. Elkarrizketa asko edukita eta beste erakundeekin landuta atera genituen gauzak aurrera.

Orain egoera ekonomikoa hobetu da, oro har, eta Udala askoz arinago dago. Esperientzia ere badugu, eta pixka bat erosoago, errazago gabiltza.

Udalaren zorra ere aipatu duzue.
Udaletxe askotan egongo da zor hori eta guri tokatu zitzaigun Getariakoa kudeatzea. Azken zortzi urteetan asko murriztu dugu: %60. 2007an 2.700.000 eurokoa zen eta gaur egun 1.000.000 pasatxokoa.

Gainera, Foru Aldunditik heltzen den diruaren kalkulua oker egin zen, emandakoa baino gehiago gastatuz. Beraz, 2011ko eta aurreko urteetako zorrak ordaintzea egokitu zitzaigun.

Orduan, hasierako egoera hura pasa arte ezin izan zenuten zeuen proiekturik garatu?
Guretzako berria zen mundu batera iritsi ginen, eta nik neuk urtebete pasa nuen kokatu ezinik. Tarte horretan gertatu ziren aipatutakoak.

Gero Ulpiano eraikina egiteko aukera sortu zen. Atrebentziaz jokatu genuen eta izaera horrek lagundu digu buelta ematen gai ekonomikoari.

Ondo atera zen; estu hartu genuen asmoa eta horrek lagundu digu hurrengo zazpi-zortzi urteetako kudeaketan.

Parte-hartze prozesuak izan dira azken urteetan jarduteko moduetako bat.
Alderdian daukagun ereduetako bat da. Uste dut asko dugula ikasteko, bai herritarrek bai guk. Kontzientzia edo heziketa falta da, ikustea parte-hartze prozesuz gauzak egin daitezkeela. Zor bat egin behar bada, herritarrek jakitun izan behar dute, eta parte izatea badute, era onean izan dadila.

Gauza ezberdinak egin dira parte-hartze prozesuz: terrazen araudia, lehorreratzeko parte-

Nika Lertxundi.

"Guretzako berria zen mundu batera iritsi ginen, eta nik neuk urtebete pasa nuen kokatu ezinik"

Itsas-denboraleak instalazio ezberdinak kaltetu zituen 2014an.

hartzea, aurrekontuak *Guztiok 1!* egitasmoaren bidez...

Edozein gaiz aritzeko prestatuta al dago herritarra?
Baiezkoa erantzunda oso ondo geldituko nintzateke; ezezkoarekin, badirudi ez dudala sinesten parte-hartze prozesuetan.

Adibide bat: jendeak bozkatuko al luke lur azpian sartu behar diren hodiei lehentasuna ematea? Agian ez, eta izugarrizko garrantzia dauka lur azpiko zerbitzuak ahalik eta ondoen izateak. Lanketa bat egin behar da eta denborak erakutsiko du prozesu hori denean posible den edo ez.

Horrelako batetik abiatuta aldatu dira lehorreratzeko irizpideak, adibidez.
Familiaz zetozen marinel jakin batzuk egoteak galderak sortzen zituen. Hori moztu dugu baina ez genuen haustura bat eragin nahi, eta antolatu ezin zen garaian atera ziren boluntario familiekiko errespetuz, erretiratzen doazen heinean egingo da aldaketa: hurrengo belaunaldira pasa beharrean, Udalaren esku geratuko da tripulatzailearen lekua zozketaz emateko aukera.

Askok nabarmendu dute tripulazioa Udalaren kudeaketara pasa arren, gizonak izaten jarraituko dutela. Memento honetan ez dugu bestelakorik baloratu, iruditzen zaigulako pertsonaia historikoak zirela eta hori dagoeneko generoarekin identifikatuta zegoela. Hala ere, eztabaida hori ireki behar bada, ez dago arazorik.

Elkanoz ari garela, nola bermatuko da aurkeztu berri den Mundubira Elkano 500 Fundazioaren eta herriaren arteko harremana?
Fundazioa ezinbestekoa zen. Gaia landu beharko dugun erakundeok nahikoa dugu egunerokotasunean. Lanketa zuzena beharko da eta horretarako zinegotzi batek egon behar du hor. Horrekin oinak lurrean mantendu nahi ditugu.

Bestalde, herritarren ekarpen asko eginda daude; hauek galbahetik pasa eta proiektuak —batzuk— gauzatu egin behar dira.

Kultura ondareari lotuta, zerbait egin al da Kofradia Zaharrarekin?
Ez da gauza askorik landu, batetik, eskumena ez delako Udalarena eta bestetik, esleituta zegoelako. Kofradia zen horren erabiltzailea. Gainera, portuetako legedia dago, hainbat gauza murrizten dituena. Lantzen ari ziren eta uste dut onartu berri dutela. Hori egin arte ezinezkoa zen ezerekin amesten hastea.

Zeintzuk dira hirigintzan egindako hobekuntzak?
Ahaztu dugu baina hoditeri handi haiekin egindako errepideko obren aurretik, uholdeak genituen herrian edozein euriterekin. Hori aprobetxatuz, uren banaketa egin da, garbitu eta berriro itsasora bidaltzeko.

Herrerietakoa bukatutakoan, oso gune txikiak geratuko dira egiteko. Eremu horretan aurrera begirako lanak egin dira: egunen batean Potzuaga inguruan etxe berriak egiten badira, horko urak bideratzeko diametroa bermatuta geratu da.

Sahatsagako etxeei dagokionez, getariarrentzat izatea bermatzeari besteko garrantzia ematen diot bide berriari. Biribiltasuna emango dio herriari, gaur egun Sahatsaga bukatu eta Herrerietan trafikoari lotutako mugikortasun

"Gelditu zaizkigu hainbat gauza egiteko: Elkano kaleko zorua, Zarauzko pasealekuaren hasiera eta aparkalekuak"

arazoak gertatzen direlako. Erruera atzetik biak bateratzeak, ahalmena eskainiko du egoera jakinetan (obrak, festak...) neurri ezberdinak hartzeko.

Bestalde, saiatu gara zerbitzu berriak egin edo berritzen: eskolako jangela eta aretoa, Ulpiano eraikina, haurtzaindegia, anbulatorioa, beilatokia, eguneko zentroa, elkarteak, Askizuko frontoia, Alhondiga...

Gaur-gaurkoz aurreikusita al dago herria handitzen bada, norantz izango den?

Ez. Arau subsidiarioak dira, hamar urteko ikuspegiarekin, herriaren antolaketa zehazten dutenak. Agortzear daude une honetan; gure erabakia izan da Sahatsagako eremua erabat bukatu eta arauok hurrengo legegintzaldian lantzeko uztea.

Orduan erabakiko da herria handitzea nahi den, nora handitu, etxebizitza berriak egin edo herriak erabakitzen duen ezetz, nahiago dugula gure izaerarekin jarraitu eta etxe gehiago ez egin.

Beilatokiak zeresan ugari eman zuen. Zenbateko erabilera du? Zein ari da hori kudeatzen?

Estreinatu berria da. Gehiago erabiltzea nahi dugu baina jendeak erabaki behar du; eskaintza eta aukera badaude. Zerbitzua esleitzeko edo Udalak kudeatzeko aukera dago eta, oraingoz, geu ari gara.

Hondakinen sistema berriak nolako emaitzak eman ditu?

Tasa %60tik gorakoa da, garai batekoa baino hobea. Getariak dena zuen hobetzeko, datuak ez ziren-eta oso onak.

Ostalaritza eta industrian atez ate jasotzen da. Aurrenekoan zalantzak izan ziren hasieran, baina lehen uda pasata, irakurketa nahiko positiboa egin zen. Hobetzen joan beharko da baina oraingoz ondo funtzionatzen ari da.

Landu gabe geratu da aparkalekuen gaia.

Gelditu zaizkigu hainbat gauza egiteko, adibidez, Elkano kaleko zoruak ez labaintzeko zerbait jartzea, Zarauzko pasealekuaren hasiera egokitzea eta aparkalekuak. Lehen bien proiektuak eginak daude, hirugarrena hurrengo legegintzaldian landu beharko dute.

Horrekin lotuta, aurtengo aurrekontuetan 10.000 euro aurreikusi dira, parte-hartze prozesuaren bidez, ordenantza bat garatzeko.

EAJk salatu izan du informazioa ez zaiola garaiz heldu izan. Nolakoa da udaletxe barruko harremana?

Ez da txarra, badaukagu komunikazioa. Ziur hobea izan zitekeela, okerragoa izan da, askogatik.

Zein egoeratan jasoko du herria hurrengo alkateak?

Gauzak badaude egiteko, orain ari dira herri programak lantzen.

Gure helburua da lanketa batzuk erabat bukatuta uztea: kiroldegiarena; urena; etxebizitzak egin gabe bada ere, eratuta geratzea... Idazkariak askotan barre egiten dit baina hurrengo 20-25 urte bermatuta utzi nahiko nituzke, hau da, berrikuntza txikiak bakarrik egin behar izatea.

Etorkizunean jende berria etorriko da proiektu eta ideia berriekin. Horregatik utziko dugu, gogo eta indar berriak etor daitezen. Animo handiena beraiei, bai alderdi batekoei bai bestekoei, azken batean herrigintzan jardun beharko dute-eta.

Zuk zer egingo duzu ekainetik aurrera?

Proiektuekin bizi-bizi nabil memento honetan eta ez naiz ari horretan pentsatzen, baina, umil-umil, lehengo lantokira bueltatzeko asmoa dut. Oso giro oneko tokia daukat han ere. Atsekabez utziko dut udaletxekoa, zinegotzi eta teknikariekin oso giro ona daukagulako. Pena batzuk izango ditut baina aberastasun batzuekin joango naiz.

Getariarrei erantzunez

ARTZAPEren webgunean jakinarazi genizuen duela aste batzuk Nika Lertxundi elkarrizketatzera gindoazela. Ez genuen bakarrik egin nahi, eta galderak helarazteko proposatu genizuen. Ondorengoak dira jasotako erantzunak.

Orain telematikoki egin behar dira eskariak udaletxean. Sentsazioa da instalazioak eta materiala uzteko zailtasun gehiago dagoela.

Guk herritarrei eskatzen diegu gu ere derrigortzen gaituztelako. Datorren lege baten ondorio da, ez da Getarian bakarrik gertatzen: Izenpe txartelik ez duenak ezin du harremanik eduki erakundeekin.

Niri ere iruditzen zait batzuetan sistemak aldrebesten ari garela erraztu beharrean, baina gainetik datorren zerbait da. Kontrol nahia dela uste dut, zer eskatzen den jakiteko kontrola.

Derrigorrezkoa da eskariak egiteko identifikazio fiskaleko kodea (IFK) izatea?

Orain, dirua eskatzeko, entitate batek ezin du IFKrik gabe egon. Gu kontrolatzen gaituzte, nori eta zergatik ematen diogun dirua jakiteko, gastu aldetik erabat kontrolatuta gaude.

Telematikoki egindako eskari horiek askotan ez dute erantzunik izaten, zenbaitetan zeuri zuzendutakoek ere ez.

Posible da, aitortzen dut idazketa ez dela nire mundua. Ez da egia ez direnik inoiz erantzuten, erantzun izan direlako baina posible da nire akatsetako bat izatea.

Batzuetan elkarte eta herritarrei eskatzen zaien legezkotasun eta zorroztasuna ez da berdin aplikatzen udaletxean (dirulaguntzak ematerakoan, esleipenak egiterakoan...).

Onartu behar dugun akats bat da. Askotan egunerokoak jaten gaitu, gain hartzen digu. Besteei esaten diegu nola egin behar duten eta geuk huts egiten dugu. Ez luke gertatu behar eta etxeko lanak dauzkagu hori konpontzen.

Sahatsagako etxebizitzak izango dira eraikitzen hurrengoak. Zergatik ez da alokairu sozialaren aldeko apusturik egiten?

Herri txikiok arazo bat daukagu alokairu sozialarekin: hori egiteko Udalak jabetza bat eduki behar du, eraikin edo lur-sailak. Getariako herriak memento honetan ez du halakorik.

Alokairu sozialarena ideia polita da, eta beste herrialde batzuetan gehiago ematen da, baina zailtasun dezente ditu.

Balenciaga kalean, lur gaineko aparkalekuak kendu ziren lekuan, garajeak jarri dira salgai. Zergatik saldu? Doako irtenbiderik aurreikusi al da?

Hortik sortzen den dirua kalean edo zerbitzu batean erabiltzea bermatzen baduzu, herritar guztientzako izango, eta garajea erabiltzaile bakarrarentzat. Salmentatik datorren dirua aurrekontuetarako erabiltzen da, batekin egiten duzu bestea.

Aparkaleku horiek urteak daramatzate alokairuan, eta doakoak kalean daude.

Bestalde, hor lur gaineko aparkalekuak galdu dira baina beste gauza batzuk irabazi: anbulatorioa, haurtzaindegia, eguneko zentroa... Uste dut garrantzitsua dela produktua gero zertan bihurtzen duzun.

Hondakinen sistema zaharreko edukiontzien lekuan ezin al da aparkalekurik jarri?

Estali eta aparkalekuak sortuko dira. Bost gune inguru daude eta asmo hori dago, nahiz eta espaloi zein zebrabide batzuk aldatzekoak garenez, agian, horietako zerbait edo motorren nahiz autoen aparkaleku bihurtuko den baten bat.

Zergatik ateratzen dira hain berandu urteroko hainbat lehiaketa publiko edo esleipen —Katraponako kantina, adibidez—?

Hala egiten dela dioenak arrazoia du neurri batean; bestalde, aurreratuz gero, ikasle askok ezingo lukete izenik eman, eta data jakin batzuetan irekita egotea bermatu behar da.

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK

IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981

azkuelek

Araba kalea, 41 ZARAUTZ
(Maxi Eroski ondoan)
943-13 04 33 - 619 523 539
azkuelek.com

ETXEKO BERRIKUNTZAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK · ARGIZTAPENA · DEKORAZIOA · KONPONKETAK · ANTENAK

TXUKUN LORAZANTZA, S.L.

Lorezaintza, mendiko lanak, indusketak, itxiturak...

660 332 756 - 679 428851
txukunlorazantza@hotmail.com

POLITENA

GURE BEREZITASUNAK:

- Astegunetan:
  Eguneko menua
- Jaiegun eta asteburuetan:
  Luxuzko pintxoak, bokatak eta razioak.
- Eramateko eskariak.
- Wi-Fi zerbitzua.

GETARIA

Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

aranola
PVC eta Aluminiozko lanak

Tel.: 649 95 15 03 / 649 97 30 41
Fax.: 943 14 02 86

Taberna
Mayflower
Erretegia

katrapona, 4
Tel.: 943 14 06 58 GETARIA

TXOKO
Getaria

txokogetaria.com

Tlf: 943 140 539

Saharako eta Txernobylgo haurrak

OSASUNA HOBETZEN LAGUNTZEKO FAMILIEN BILA

Egunotan gure etxeetan sartu dira bi familia dituzten haurrak, "bat Saharan eta bestea Euskal Herrian" diote. Gehienak irratiz heldu dira gugana, baina aurrez-aurre ezagutzeko aukera dugula jakinarazteko ari zaizkigu hizketan. Ez dira bakarrak, Txernobylgo zentral nuklearraren ondorioak jasaten dituzten umeak ere gurera heltzeko irrikaz baitaude. Ez lirateke Getariara iristen lehenak.

TESTUA eta ARGAZKIA
IURE EIZAGIRRE

Udan, gure umeak plazara irteten diren garaian, munduko beste leku batzuetakoak etxeetan gorde beharra dute, bero jasanezina ekiditeko. Egoera horretan daude, adibidez, Saharako errefuxiatuen kanpalekuetako txikiak. Dena den, badira zenbait salbuespen; Oporrak Bakean bezalako programei esker, hilabeterik beroenetan euren lurrak utzi eta gugana etortzeko aukera dutenez ari gara.

Saharautz elkarteko ordezkariek azaldu dutenez, ordea, azken urteetan gutxitu egin dira familiak, eta ondorioz, baita umeek basamortua utzi dezaketen urte kopurua ere. Gaur egun "10 eta 12 urte arteko umeak hartzen ditugu. Lehen lau urtez etortzen ziren baina familia gutxi ditugunez, ume bakoitza bi urtez ateratzen da, gehiagori emateko aukera".

Hango beroari ihes egiteaz gain, mediku arreta eskaintzen zaie Euskal Herrian. Amagoia Iturraldek lau urtez hartu zuen Saharako ume bat etxean ekainetik abuztura: "Osasunari dagokionez, ohikoena begiratzen diete, odol eta txiza analisia egin, ikusmena aztertu... Zerbait badute hemen dauden bi hilabeteetan laguntzea da asmoa. Arnas aparatua hondarragatik pixka bat ukituta eta begiak eguzkiagatik apur bat erreta izaten dituzte". Azterketa horren baliagarritasuna agerian uzten du Saharautzeko ordezkarien adierazpen honek: "laz sei ume eduki genituen Orio, Zarautz eta

Harrera familiak bilatzeko kanpainen kartelak.

Harremanetarako

- **Chernobil Elkartea**
  670 419 078
  www.chernobil.org
- **Saharautz**
  686 569 033
  Facebook: Saharautz Elkartasun Taldea

Getarian; bost betaurrekoekin itzuli ziren. Saharan ez dute aukerarik hori egin eta betaurrekoak lortzeko".

Sahararrek ez ezik, Txernobylen (Ukraina) 1986an lehertutako zentral nuklearraren kalteak jasaten dituzten umeek ere nabaritzen dituzte osasun onurak gurean pasatako bi hilabeteetan. Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, kutsatutako eremutik kanpo pasatzen duten hilabete bakoitzeko, 12 eta 18 hilabete artean luzatzen zaie bizi-itxaropena.

Eremu hartakoa da Marina eta Getarian igaro zituen 7 urtetik 15era arteko udak. Aurrez aipatutako osasun onura baieztatu du etxean hartu zuen Arrate Ulaziak: "Hemen pasatzen dituzten bizpahiru hilabetetan dezente desintoxikatzen dira. Ez airearen kalitateagatik bakarrik, baita ura, elikagaiak eta abarrengatik ere. Ikusmeneko, hortzetako edo bestelako arazoak badituzte, medikuarengana eramaten ditugu; han ez duten arreta jaso dezakete".

Chernobil Elkarteko kideek azaldu dutenez, eurena "osasun programa da, umeak ez datoz gaixorik baina bai ahul". Bestalde, Saharakoekin alderatuta, adin tarte handiagoko umeak etor daitezke, 6tik 14 urtera artekoak.

Baldintzak eta zailtasunak

Ilusioa, denbora eta etxeko beste bat bezala tratatzea eskatzen zaie familiei, oinarrizkoena ematearekin batera. Hori bai, haurra itzuli eta adopziorako izapiderik ez dutela hasiko sinatu behar dute aurrez. Bestela, sendiek ez dute oporretara joateko —herrialde barruan— zein beste jarduerak egiteko debekurik, ezta ekintza jakinetan parte-hartzeko derrigortasunik ere, nahiz eta egiari zor, familiak eurak dira umeentzat egoera berean etorritako beste haurren konpainia bilatzen dutenak.

Lehen egunak izan ohi dira, normalean, gogorrenak. Marijose Ucinek 9 urteko mutiko saharar bat izan zuen etxean hiru udatan, eta lehenengoan "keinuz eta gaztelaniaz" aritzen ziren —Saharak Espainiarekin izandako harremanagatik, kanpalekuetako eskoletan gaztelania lantzen dute bigarren hizkuntza modura—. "Bigarren udaren erdialdean, euskara erabiltzen hasi ginen, askotan erakutsi baitzuen ikasteko gogoa".

Antzeko egoera bizi izan zuen Marina ukrainarrak ere: "Heldu zenean ukrainera eta errusiera bakarrik zekizkien, keinuekin komunikatzen ginen. Azkar hasi zen ulertzen, baita gaztelania apur bat hitz egiten ere. Azken udatan, gaztelaniaz ederki egin eta euskara nahiko ondo ulertzen zuen".

Hizkuntzaz harago, badaki zerbait Iturraldek lehen egunen gogortasunaz: "Hasieran, haurra nire ahizpak hartu zuen, Hernanin. Lehen egunean negar eta negar egiten zuen eta ulertzen ez zionez, laguntzera joan nintzen. Haurra lasaitzeko Getariara ekarri nuen, luzatu eta hemen gelditu zen".

Dakartena

Haurrek ez ezik, familiek ere jasotzen dute esperientzia honetatik, hala dio Ucinek: "Oso polita izan zen, oso pozgarria da guretzat balio gutxi izan dezaketen gauzekin nola hunkitzen diren ikustea". Gurasoei zein familiako beste umeei on egin ziela uste du Ulaziak: "Guretzat garrantzitsuena da jakitea ume bati dirua beharrean maitasuna, denbora eta arreta eman dizkiogula. Gure seme-alabei erakutsi die dutena elkarbanatzen beraiek baino behar gehiago dutenekin, eta kanpokoak beste edonor bezala tratatzen.

Euren etxeetan esperientzia bera bizi nahi dutenek, oraintxe dute garaia bai Saharautzen bai Chernobil Elkartean udan haurrak harreran hartzeko izen-ematea zabalik baitago.

elan euskadi
ONGD - GGKE

Espaziora mezua: ez erantzun!

Espazioko izakioi mezu bat bidaltzera behartzen nau kontzientziak. Ez dakit zein hizkuntza duzuen, ez non zaudeten, ez eta gurekin harremanik nahi duzuen. Baliteke gure berri izatea, gure espazio-ontziren bat ikusi izana zuen intimitatea kuxkuxeatzen, zuen etxe inguruan lurreratzen edo gure dei espazial horietakoren bat jaso izana.

Badirudi ez duzuela oraingoz erantzun, nahiz eta zenbaitzuk dioten martetarrekin topo egin izan dutela. Zuen onagatik, ez erantzun gure mezuak!

Gizakien historiaren pasarte batzuk bidaliko dizkizuet, Cromagnon-Neanderthalen garaikoak, Erromatar inperiokoak, Afrika eta Ameriketako kolonizazioetakoak. Hor ikusiko duzue gizakiak erdi hilda iristen garela lurralde berrietara, bertakoek abegikor hartzen gaituztela, gure herrietara itzultzeko beharrezko hornidurak ematen dizkigutela eta hurrengo bidaian **lurrak geureganatzera itzultzen garela**, indarrez, beti indarrez! Horretan ankerrenak zuri kolorekoak gara eta gizakien artean, "gizonak" deitzen garenak —epe laburrean deitura hau alda daitekeen arren—.

Gizaki gizon zuri bat naiz. Nire mezuaz fida zaitezkete? Puff...

Gizakien artean traidore izendatuko nauten arren, to beste mezu hau ere: ez izan harremanik gizakiekin, eta hala izanez gero, ez dezatela lurrean jakin; **apur itzazue gure espazio-ontziak**. Hori bai, bertan gizaki-etorkinik balego, har itzazue zuek dakizuen bezala, abegikor, eta ez utzi itotzen zuen itsaso edo basamortuetan; baina ez daitezela sekula lurrera itzuli.

Beste aukera bat ere badago: zuek gu baino aurreratuagoak izatea, zuentzat gu lurreko gorila antzekoak izatea. Beharbada aztertzen ari zarete guretzat zoologikoren bat ireki ala ez. Guk sartu izan ditugu beste gizaki batzuk zoologikoetan, bai, geureganatu ditugun lurraldeetakoak, eta baita esklabizatu ere. Beste espezietako bizidunekin zer esanik ez; egunero akabatu eta jaten ditugu, baita neuk ere, eta gozatuz gainera.

Nire mezua presazkoa da gure klima aldatzen ari gara-eta. Aurreratzean gero eta espazio-ontzi gehiago joango dira zuen planeta inguruetara, lur berri baten bila, hura ere geureganatzeko, noski.

Kuriositatez, azkeneko espazio-ontzia ikusi? Pluton ingurukoa? Polita, eh? Azken irrintzia omen da!

Zuek nahi duzuena egin, ez dago bizidunik barruan.

Udaletxeko artxiboetatik
EREITEN Kultur Zerbitzuak

Udal aktak

Hilabeteak joan hilabeteak etorri, udal akta liburuetan jasotako informazioan oinarritzen dira berriak. Edukiei buruz aritzea oso erakargarri eta aberasgarria den arren, iturriei denbora bat eskaintzea ahazten zaigu askotan, eta ezin zaigu ahaztu horien araberakoa izango dela beti informazioaren zilegitasuna. Hori dela eta, Udal akta liburuei buruz arituko gara ondorengo lerroetan.

Udal akta liburuak udaletxeetan ekoitzi izan diren eta ekoizten diren serie dokumentalen artean garrantzitsuena dela esan daiteke zalantza izpirik gabe. Bertan, udaleko partaideek edozein gairi buruz hartutako erabaki edo egindako akordioak islatzen dira. Behe Erdi Aroko hiri garrantzitsuenetan jatorria duen serie dokumental hau, jakina den moduan, egun ere ekoizten jarraitzen da. Hori dela eta, diplomatiko, historialari, artxibozain eta administrarien aztergai izan dira urte askoan zehar, garaian garaiko errealitatearen zantzuak antzeman baitaitezke hauen edukietan.



Kontserbatzen den akta zaharrenaren izenburua. / Argazkia: www.getariakoartxiboa.net

Aktak udal idazkariak bete izan ditu mendeetan zehar eta egun ere bere betebeharren artean jarraitzen du. Dokumentu honek ondorengo datuak ezinbestean jaso beharko ditu:

- Batzarraren eguna, tokia eta data.
- Batzarreko parte-hartzaile diren pertsonen izen-abizenak.
- Batzarraren hasiera ordua.
- Parte-hartzaile guztiek izandako esku hartze guztiak.
- Batzarreko erabaki edota akordio guztiak. Argi erregistratu beharko dira, bozketa kasuan, honen nondik norakoak, parte-hartzaile bakoitzaren botoak eta, nola ez, emaitzak.
- Proposamen eta gertakari mota guztiak.
- Bilera amaieraren ordua eta parte-hartzaileen sinadurak.

Getariako udal artxiboan 3.900 batzarretako aktak gordetzen dira. 1838ko irailaren 10etik aurrerako aktak kontserbatzen dira. Askoz gehiago sortu izan direla jakina den arren, artxiboa erretzeak asko eta asko galtzea eragin zuen, ondasun galera ikaragarria suposatu zuena.

Ezin da aipatu gabe utzi, udal aktak eskuragarri daudela Getariako artxiboak daukan webgunean (www.getariakoartxiboa.net).

euskal herriko
eskubide
sozialen
karta | Getaria

getariako udal liburutegia

Liburutegiko araudia

Askotan entzungo zenuten liburutegietan gauza asko gertatzen direla, ez direla irakurtzeko espazioak soilik. Ikasteko, partekatzeko eta ondo pasatzeko tokiak direla. Gurea oso txikia da baina hori guztia gerta dadin saiatzen gara.

Liburutegian liburuak irakur ditzakegu, norberak edo oraindik ikasi ez duen haur bati. Haur horri irakurtzen irakats diezaiokegu. Jolas lasaietara jolastu dezakegu, hala kartetara nola mahai jokoetara, eta hitz egitea ere posible da, beti ere gainontzekoei traba egiten ez dien tonuan. Marrazteko espazioa ere bada, idazteko, pentsatzeko, ideia berriak gauzatzeko, etxerako lanak egiteko, ikasteko edota tailerrak eta irakurle taldeak antolatzeko. Gauza askotarako balio du liburutegiak.

Gure liburutegian gauza hauek gerta daitezen, bizitzako gainontzeko esparruetan bezala, arau batzuk ditugu. Aipatutako arauek liburutegiaren funtzionamendu aproposa ahalbidetzen dute, eta beharrezkoa da hauek errespetatzea gure liburutegiak martxan irautea nahi baldin badugu.

Gogoratu ditzagun garrantzitsuenak:

- Liburutegia herritar guztiona da; bertan giro lasaia mantentzea ezinbestekoa da.
- Ezin da bertan jan, edan eta erre.
- Materiala zaindu behar da; guztiona da eta luzaroan iraun behar du.
- Ordenagailua eskuragarri dago lanak egin edota Interneten ibiltzeko. Informazioarekin, ezagutzarekin eta ikaskuntzarekin lotutako gaiak bilatzeko da.
- Ikasketa gela 16 urtetik gorako ikasleei zuzendua dago.
- Gela erabiltzeko eskaera-orria bete eta txartela eskuratzeko 5 euro ordaindu behar dira.
- Txartela pertsonala da; ezin zaio beste bati utzi.
- Ikasketa-gela asteburu edota liburutegiaren ohiko ordutegitik kanpo erabiltzeko, erabiltzaileek bazkide izan behar dute. Horrez gain, asteburuetan erabiltzeko eskaera berezia egin behar dute. Taldekideak eraman behar izanez gero, haien izen-abizenak jakinarazi beharko dituzte eskaera egiterakoan, eta bazkidea bera izango da arduraduna.

Horrela, argi dago zein jarrera diren aproposak liburutegian eta zein ez, baina oraindik argi ez balego ere... ezin duzu liburutegian merienda jan, ezin duzu korrika egin, ezin duzu garrasika hitz egin, ezin duzu zigarro bat piztu, ezin duzu baloiarekin jolastu, ezin dituzu mugikorra eta ordenagailua soinuarekin erabili, ezin duzu inor jo, ezin dituzu beste erabiltzaileak eta liburutegiko langileak iraindu, ezin dituzu liburuak lekuz nahita aldatu edota hauek lurrera bota, ezin dituzu janari apurrak liburu tartean utzi, ezin zara txartelik gabe ikasketa-gelara sartu eta ezin duzu ikasketa gela ikasteko edo lana egiteko ez den beste ezertarako erabili.

Horrelakorik egiten baduzu, liburuzainak kalera botako zaitu. Eta, aipatu bezala, ezin duzu liburuzaina iraindu eta berak esandakoa errespetuz bete beharko duzu.

Honek guztiak begien bistakoa badirudi ere, gure liburutegian horrelakoak gertatzen dira ia astero.

Hortaz, liburutegian gauza asko egin daitezke, baina errespetua mantenduz, liburuekiko eta ingurukoekiko. Denok pentsatu beharko genuke nolako liburutegia nahi dugun eta horren arabera jokatu bertan gaudenean edo seme-alabei hara joateko baimena ematean. Zaindu eta egin dezagun denon artean liburutegi atsegin eta erosoa, mesedez.

Robotika lantzen

Duela pare bat urte Lakuako Hezkuntza Sailak Steam estrategia jarri zuen martxan. Steam hezkuntza zientzia, teknologia, ingeniaritza, artea eta matematika intregratzen dituen hezkuntza da eta helburua zientzia eta teknologia gaietako hezkuntza sustatzea da ikasmaila guztietan. Bokazio zientifiko-teknologikoak pizteak errazten baitu ikasleok erantzukizunez aurre egitea egungo gizarteko erronkei.

Aukera paregabe hau galdu ezinik, Iturzaeta Herri Eskolako irakasle taldeak ere Steam hezkuntzan murgiltzea erabaki zuen. Horrela, ikasleok teknologia digitalak erabiliz, erronka ezberdinak ikuspegi metodologiko aktibo eta eraginkorrak aplikatuz gainditzen ditugu. Iturzaeta Herri Eskolak hiru zikloetarako materiala erosi du eta Lehen Hezkuntzako ikasle guztiok, tailerretan antolatuz, hiruhileko batean lantzen dugu robotika.

Lehenengo zikloan bi jarduera mota ezberdin egiten dituzte. Alde batetik, ikasleek lurreko robota, Bee Bot, programatuko dute mahai tapizetan mugi dadin. Mahai tapiza 15×15 zm-ko karratutan banatuta dago eta bertan irudi ezberdinak txertatzen dira. Ikasleek aurrera, atzera, ezkerrera eta eskubira mugimenduak programatuz erronka gainditu beharko dute. Eta bestetik, Code.org programa egiten dute. Programa hori *online* dago eta bertan programazioaren lehen hastapenak lantzen dituzte, gero eta zailagoak diren erronkak gaindituz.

Bigarren zikloan Code.org programaz gain, ikasleek robotak eraikiko eta programatuko dituzte LEGO WeDo 2.0rekin. Horretarako, robota eraikitzeaz gain, ordenagailuz LEGOk eskaintzen duen softwarea erabiliz, mugimenduan jartzen dute robota. Hori gutxi ez eta, Scrath 2.0 programaren lehen hastapenak ere egiten dituzte.

Hirugarren zikloan, gurean hain zuzen ere, aurreko jarduerez gain, Scrath 2.0 programak hartzen du indarra. LEGO WeDo 2.0rekin egindako robotak Scrath 2.0 programa erabiliz eta aginduak programatuz, Bluetooth konexioaren bitartez jartzen ditugu mugimenduan.

Esperientzia berri honetan hasi berriak gara, baina ikasleok nola disfrutatzen dugun ikusita sakontzen jarraitzea gustatuko litzaiguke. Izan ere, ondo pasatzeaz gain, matematika arloko geometria eta orientazioa, besteak beste, ikaragarri lantzen baititugu, liburuan lantzen diren baino errazago. Eta ahaztu gabe aurrerantzean DBHn ere programatzen jarraitu beharko dugula, Lehen Hezkuntzan pauso hauek ematea beharrezkotzat ikusten dugu.

Urte hasierako ekintzak

Kaixo urritzazaleok,

Urtea ilusioz hartu dugu eta urtarrilaren hasieran Txuri Urdinera joan ginen. Haurrek ederki pasa zuten, baina baita begiraleok ere! Otsailean emakumeen aldeko futbola bultzatzeko, Anoetara joan ginen Real Sociedad - Athletic partida ikustera. Oso ondo pasa genuen, izugarrizko giroa jarri genuen eta asko animatu genuen; baita golak ospatu ere!

Haurrak Real-Athletic partidan.

Nesken hurrengo partidaren zain geratzen gara, zuek ere bai?

Ikusten duzuenez, urtea gogotsu hasi dugu eta horrela jarraitu nahi dugu urte guztian zehar.

Laister udaberria dator, eta horrekin batera udalekuak antolatzen hasiko gara.

Animatu hurrengo ekintzetara!!!

SIZ
Servicios Informáticos Zarautz

Ekipo informatikoen salmenta
Mantenua
Informatika akademia
Webguneen diseinua

Urdaneta 2, behea · 20800 Zarautz
Tel. 943 894 014 · fax 943 133 410
www.zarautz.com · siz@zarautz.com

EDURNE IRIGOIEN

PLIST & PLAST



ANDRES ALBERDI

Piedre egin

Aspaldian entzun ez zuela-eta, EITBn entzun omen zion lehengo batean Eguzkitzeri, eta umetako garaiaz gogoratu omen zen. Hala esan zigun duela aste batzuk Benigno Burgañak, eta mereziko zuela zeozer esatea horretaz ARTZAPEn.

Ba, bai. Getarian ez ezik Euskal Herriko toki askotan erabiltzen den esapidea da pilota-jokoan. *Piedre* egiten bada, falta da beti (*Piedre!*). Eta piedre egiten da pilota-jotzaile batek nahi gabe bere bikotekidea jotzen badu pilotaz edo paretatik bueltan pilotak nahi gabe jotzailea bera jotzen badu.

Itxura guztien arabera, gaztelaniazko "pierde"tik dator, *r* kontsonantea tokiz aldatuta. Horrelako aldaketak ez dira hain arraroak euskaraz ahozko moldean: *persona/presuna, pobre/probe, pretil/petril, Fernando/Ferrando*...

Hiztegi batean bakarrik aurkitu dugu azalpena *piedre* hitzaren inguruan; Mitxelenaren *Orotariko Euskal Hiztegia*n, beste inon ez.

Getarian eta inguruetan esaten diren hitzen txokoa da hau. Animatu eta bidali *artzape@topagunea.com* -era ezagutzen dituzun hitzak.

Idazlea
AMAIA IRAZABAL

Zalantzati batek

Iraungitze data guztiak

iraungi zaizkit eta oraindik

ez dut hartu erabakirik.

Inertziak lapurtutako pausoak

asfaltoan erortzen doaz

aztarna lausoak

utziz

papurrak jaten usoak.

(bira bat beharko luke hemen testuak

baina *ez dakit* nora eman)

Ausartu beharko nuke...

Eta erabaki pausoak, iltzatu asfaltoak,

behingoz erabakia

hartu bere pisu guztiarekin.

Eta indartsu sentitu

oso.

Ez erabakitakoagatik, erabakitzeagatik baizik.

2019ko MARTXOA

Agenda www.artzape.eus webgunean eguneratzen dugu. Adi egon!

1 Ostirala

Inauteri festa
Ordua: *14:30*
Lekua: *Herri Eskola eta kiroldegia*
Antolatzailea: *Iturzaeta Herri Eskola*
Mozorro desfilea, jolasak, festa, txokolatada.

IX. Floren Memoriala Futbito Txapelketaren hasiera
Ordua: *21:00*
Lekua: *herriko frontoia*
Antolatzailea: *Gure Txeru*

2 Larunbata

Inauteri festa
Ordua: *goiz eta arratsaldez*
Antolatzailea: *Getariako Udala*
Erakusleiho lehiaketa, mozorro-poteoa, Sugarri txaranga, mozorro-desfilea, Gure Txeruren dantza.

3 Igandea

Memoria historikoari buruzko ekitaldia
Ordua: *12:00*
Lekua: *Katxapo*
Antolatzailea: *Getariako Udala*
Aranzadirekin memoria historikoa lantzeko hiru urteko lanaren ondoren, oroimen plaka bat eta ikurriña jarriko dute errepresioa jasan zuten getariar guztien omenez.

Zinema emanaldia
Ordua: *17:00*
Lekua: *Gure Txeruren lokala*
Antolatzailea: *Guraso Elkartea*

6 Asteazkena

Solasaldia
Ordua: *19:00*
Lekua: *Berdura plaza*
Antolatzailea: *Getariako Udala*
"Sarekonpontzaileak, ahalduntze prozesu baten irakaspenak" lana ardatz, Gurutze Izagirre Intxauspek gidatuko du. Ondoren, mikrofono irekia eta mokadutxoa.

FIFA txapelketa
Lekua: *Alhondiga*
Antolatzailea: *Katxopa gaztelekua*

8 Ostirala

Manifestazioa Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira
Ordua: *19:00*
Lekua: *frontoitik abiatuta*
Antolatzailea: *Getariako Udala*

9 Larunbata

Mihiluze lehiaketa
Lekua: *Alhondiga*
Antolatzailea: *Katxopa gaztelekua*

10 Igandea

Mendi irteera: Erentxu-Opakua ibilaldia
Izena martxoaren 7a baino lehen eman behar da turismo bulegoan.

41. Gure Txeru Banakako Esku Pilota Txapelketaren finalak
Ordua: *12:00*
Lekua: *frontoia*
Antolatzailea: *Gure Txeru*

Zinema emanaldia
Ordua: *17:00*
Lekua: *Gure Txeruren lokala*
Antolatzailea: *Guraso Elkartea*

16 Larunbata

Kamisetak egiteko tailerra
Antolatzailea: *Urritza Aisialdi Taldea*

Sukaldaritza tailerra: pizza
Lekua: *Alhondiga*
Antolatzailea: *Katxopa gaztelekua*

17 Asteazkena

Dantza filmaren emanaldia
Ordua: *19:00*
Lekua: *Iturzaeta Herri Eskola*
Antolatzailea: *Getariako Udala*

Zinema emanaldia
Ordua: *17:00*
Lekua: *Gure Txeruren lokala*
Antolatzailea: *Guraso Elkartea*

Ping pong txapelketa
Lekua: *Alhondiga*
Antolatzailea: *Katxopa gaztelekua*

20 Asteazkena

Venezuela: estatu-kolpe baten epilogoa hitzaldia
Ordua: *19:00*
Lekua: *Alhondiga*
Antolatzailea: *Getariako Eskubide Sozialen Karta*
Agustin Otxotorena euskal enpresarioarekin.

21 Osteguna

Katukale irakurle taldearen saioa
Ordua: *18:30*
Lekua: *liburutegia*
Katixa Agirreren "Amek ez dute" liburua aztertuko dute.

23 Larunbata

Bazterretik bazterrera jaialdia
Ordua: *17:00*
Lekua: *San Prudentzio auzoa*
Antolatzailea: *San Prudentzioko Lagunak*
17:00etan, "Emak bakia baita" filmaren emanaldia eta ondoren solasaldia Oskar Alegria zinemagilearekin, Asisko Urmenetak gidatuta. Ondoren, xeixia eta 21:00etan, Ruper Ordorikaren kontzertua. Kontzerturako sarrerak martxoaren 15ean jarriko dira salgai, 19:00etan, plazan.

Eskoba txapelketa
Lekua: *Alhondiga*
Antolatzailea: *Katxopa gaztelekua*

24 Igandea

Txiste eta asmakizun tailerra
Lekua: *Alhondiga*
Antolatzailea: *Katxopa gaztelekua*

30 Larunbata

Dardo txapelketa
Lekua: *Alhondiga*
Antolatzailea: *Katxopa gaztelekua*

31 Osteguna

Zinema emanaldia
Ordua: *17:00*
Lekua: *Gure Txeruren aretoa*
Antolatzailea: *Guraso Elkartea*

Cristobal Balenciaga Museoa

1 Ostirala

Cristóbal Balenciaga, Moda eta Ondarea. Testuinguruak erakusketa
Historiaren eta modaren toki erkideetara garamatzan diskurtso berri bat planteatzen du, hots, gortinaren atzeko guneetara —non guztia egiten den—, zer baino gehiago nola galdetzera, eta garai bateko goi-mailako jantzigintzaren eta gaur egungo museogintzaren arteko paralelismoetara.

Saiazgetaria
HOTELA

BILERA GELA DAUKAGU

Roke Deuna 25
20808 **Getaria**
Gipuzkoa

T 943 140 143
F 943 140 345
E info@saiazgetaria.com
W www.saiazgetaria.com

Josune Uzin Berasaluze
Fisioterapeuta
EFEO zenbakia: 1.100
eskura
fisioterapia zentroa
697 961 208
Elkano kalea 9, behea

680880905
676532067
GETARIA
ERABERRI
ERABATEKO BERRIKUNTZAK
www.eraberri.com

Ganix Arakistain
OSTEOPATIA
943253634

BABEXA
Getariako dendari elkartea

ASKIZU
FAMILIA ETA TALDEENTZAT
ESKAINTZA BEREZIAK
943 83 36 41
www.itsasoa.eus | www.albergue-getaria.com
arazi@arazi.eus

PUBLIZITATE TARIFAK

Tamainak	**Zenbatekoa**
4,3 x 4	*12 euro*
9 x 4	*24 euro*
13,6 x 4	*36 euro*
9 x 8	*48 euro*
13,6 x 8	*72 euro*
orri erdia	*96 euro*

Urte osoan jartzen dutenei %10eko deskontua egingo zaie.

1. Dagoena baino gehiago ez gastatu
2. Udalaren ahalmenera egokitzen diren inbertsioak gauzatu
3. EGIN DAITEKE ETA LORTU DUGU GETARIA, EKONOMIKOKI ERE, HOBETU!!

LORTUTAKO DIRULAGUNTZAK

2011-2014	2015-2019
3.161.000€	1.271.000€

GERAKIN BERRIA SORTU ETA ARDURAZ KUDEATU

-106.356€ Jasotako herentzia	2011
1.147.031€	2015
700.733€	2018

UDALAREN ZORRA %60 JAITSI!



8 URTETAN ZORPETZE BERRIRIK EZ!

ETENIK GABEKO HARIA
2019-2023 EREDU BERDINA MANTENDU

ehbildu

Getaria